

Oiartzungo lubaki eremua

Oarsoaldeko mendietan zortzi gotorleku egin nahi izan zituen Armada espainolak XIX. mendearen akabuan. Hiru gauzatu zituzten eta oraindik ere bertan dira. Oiartzungo lubaki eremua osatzen dute.

Frantsesak!

1876an, azken gerra karlista amaitutakoan, espainiar militarren kezka Pirinioetako mugei begira jarri ziren, ustezko frantses inbasioari aurre egiteko asmoz.

Eraso hura saihesteko hamaika gotorleku altzarazi zituzten, nagusienak Iruñean (Ezka-bako San Kristobal), Jaka (Rapitán gotorlekua), Canfranc (fusilari dorre bi, Coll de Ladronesko gotorlekua eta La Sagüetako bateria), Biescas (Santa Elenako gotorlekua) eta Girona (Sant Juliá de Ramís).

Gipuzkoatik ez dira pasako

Mendebaldeko Pirinioen Defentsa Batzordeak, Antonio Rogí eta Francisco Roldanez osatuta, Gipuzkoan gotorleku andana erakitzea beharrezkotzat jo zuen. Euren artean gehien-gehien nabarmentzen ziren Oiartzungo lubaki eremukoak (*campo atrincherado de Oyarzun*).

Lubaki eremua esaten zaio armadako multzo handi bat dabilen alde zabal bati. Bertan elkar defendatzen duten gotor-

ERREENTERIAKO MENDIETATIK, **SAN MARKOS** GOTORLEKUAK PASAIA BABESTEN DU. ALBOAN, PLANOA. IRUDI NAGUSIAN, BARBETAKO BATERIA FUSILERIAKO GOIKO PARAPETOTIK IKUSITA. XIX. MENDEAN GOTORLEKUAN EGONDAKO 'ORDOÑEZ' KANOIEN KOPIAK AGERTZEN DIRA.



lekuak, defentsa txikiagoak, komunikabideak, artilleria parkea, ospitalea, munizio biltegia eta kuartelak daude, besteak beste.

Oiartzun aldean eraiki behar zituzten gotorlekurik aipagarrienak Guadalupe, San Martzial, Erlaitz, Belitz, Arkale, San Enrike, San Markos eta Txoritokietakoak ziren. Azken bi horiek Donostia eta Pasaiaiko portuko defentsan nabarmenduta zeuden. Guztietarik hiru baino ez zituzten amaitu: San Markos (1888), Txoritokieta (1890) eta Guadalupe (1900).

Erlaitz eraikitzeko lanak 1892an utzi zituzten bertan behera.

Gotorlekuen oinarrian gela gangadunak daude. Metro eta metro eta erdi bitarteko lodiak izanik, hormigoizkoak gainera, harlangaitzazko (harri irregularrak morteroz itsatsita) horma-bular edo ostikoen





SUA ARTXIBOA



JUAN ANTONIO SAEZ

*Armada espainolak
XX. mendearen
amaieran hustu
zituen gotorlekuok,
baita lekuan lekuko
udalen esku laga ere.*

GOIAN, SAN MARKOSEKO FUSILERIAKO PAPAETOA ETA ARMA-PATIOA, ETA BOLBORA BILTEGIA. ALBOAN, TXORITOKIETAKO ERAIKINAK ETA, ERDIAN, BARRUKO HOBI EDO LUBANARROA.

gainean dautza, gainean harrizko eta lurrezko geruza batek estaltzen dituela, bi edo hiru metro lodi.

Militarrek XX. mendearen akabuan hustu zituzten gotorlekuok. Harrezkerro, lekuan lekuko Udalen esku daude: Errenteria (San Markos eta Txoritokieta), Hondarribia (Guadalupe) eta Irun (Erlaitz).



JUAN ANTONIO SAEZ

San Markos, zaharrena

Urte asko eman zituzten San Markos gotorlekua eraikitzen. Lehenengo aurreproiektua 1878koa da; azkena, Antonio Rogi eta Francisco Roldan ingeniari militarrek sinatuta,

1884koa. Azken proiektua Luis Nievak diseinatu zuen (1888).

Denetara 250 soldatu hartu behar zituen gartzeluak bere baitan, atal bitan banatuta, goikoa eta behekoa, eta zortzi metro zabal zen luba-

TXANGORIK BAI?

Donostiatik abiatuz gero, AP-8 autopistatik joko dugu Irunerantz (doako zatia da), Pasaia Antxoko aterabideraino. Bertatik 'San Markos gotorlekua' karteilei kasu eginez aise helduko gara.

Astelehenetan gotorlekua itxita dago. Gobernadorearen eta ofizialen gela zaharretan Aldura jatetxea egokitu dute (tel: 943522271). Bere jantoki erreserbatuetako bat golako lubanarro-babesaren zati baten dago. Tabernak arma-patioko

terrazako mahaiak zerbitzatzen ditu. Kutarroko bateriara joateko oinezko bidea San Markosera heldu baina ehunka metro batzuk lehenago dago. Atearen aurrean, ostera, Barrakoietakoa bateria aurkituko dugu.

Txoritokieta mendia erraz ezagutuko dugu tontorreko komunikazio antena handia dela medio. Bertara heltzeko errepidetik beherantz hasiko gara. Esquinean Kutarrorako bidea topatuko dugu eta,

aurrerago eta ezkerrean, Txoritokieta errepidea azalduko zaigu. Batzuetan ibilgailuentzat itxita egoten da.

Gotorlekua eta bateria osagarria ikusi eta gero, Guadalupeko gaztelurantz jaitsiko gara. Horretarako GI-3440 errepidetik Lezorantz jo eta gero Jaizkibel mendirantz segi. Guadalupeko gotorlekua normalean itxita egoten da. Hala ere, inguratzen duen bidea oinez egin dezakegu eta bertatik bide estalia, lubanarroa,

saihets-babeserako bateriak, kanoi-zuloak eta Kalbarioko bateria ikusiko ditugu.

Erlaitzeko gotorlekuko obra zaharretara joan nahi izanez gero -haitzean egindako indusketa handiak besterik ez dago bertan, Oiartzuneraino helduko gara GI-2134 errepidetik baina herrira sartu orduko Irunerantz jarraituko dugu. "Ingelesaren gaztelua" edo 'Aireko palazioa' dioen bidebanatzea ikustean (GI-3454) bertatik joko dugu eta 12 kilometro egingo ditugu.





JUAN ANTONIO SERRA

narro edo hobi batez eta kanpoko parapetoaz (bide estalia) inguratuta.

Sarbideko tunela, lubanarroaren gaineko zubia eta ate nagusia zeharkatu ondoren, bisitaria atarira helduko da eta, bertatik, arma-patioa. 'Obra Alta' –goiko oina- esaten zioten goiko atalera igotzeko, galtzada-harrizko arrapala batetik joko dugu. Bertan gotorlekuko alderdirik interesgarrienera sartzeko ateetako bat dago: bateria kasamataduna, behin-behinean publikoari itxita. Bateria kasamataduna hamabost gangaz osatutako multzoa da eta bere baitan hamaika kanoirentzako lekua dauka.

Arrapalaren goialdetik golako kuartelaren gaineko fusileriako parapetora iritsiko gara. Bertatik, eskailera batetik, behatokira (fusileriako goiko parapetoa) igoko gara. Han barbetako bateria eta bere bost kanoiak miretsiko ditugu, baita ibar osoko paisaiak ere.

Arma-patioan, beheko oinean (*Obra Baja*) zeharreko ibilaldiari ekingo diogu. Alderdi

horretan gotorlekuak 1885-1895 hamarkadan zeukan itxura berri du. Hor daude, tamaina naturalean egindako erreprodukzioen bidez, bost kanoi, hiru obus, sei metrailadore eta garai hartako hamaika soldadu. Tunel bitatik lubanarro babesetara (*caponeras*) iritsiko gara. Lubanarrora bertara ere atera daiteke babes horietako batetik.

Gotorleku nagusiaz gain, San Markos bi bateria osagarritz hornitu zuten, Barrakoietakoa eta Kutarrokoa hain zuzen, behar zen unean kanpainako artilleriak erabil zitzan.

Berehala gelditu zen San Markos zaharkitua eta, horregatik, behin-behineko kuartel, bolborategi, alanbre-hesi biltegi eta presondegi militar gisa erabili zuten.

Txoritokietako gotorlekua


Txoritokietako gotorlekua gauzatu zitzuten hiruretatik ttipiena da. Azken proiektua



HIRURETAN TXIKIENA DA TXORITOKIETAKO GOTORLEKUA. GOIAN, BERTAKO KUARTELA, BARRUKO PATIOA AZOTEAREN ERDIAN DUELA, ETA ERAIKIN OSOAREN PLANOA.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara departamendua



(1888) Luis Nieva ingeniari militarak osatu zuen.

Bere baitan, Txoritokietak zazpi kanoi eta 60 soldaduko goarnizioa har zezakeen.

Lehenengo-lehenengo, gurutze formako eraikinean sartutako hiru bateriak bisitatuko ditugu. Bertaraino heltzeko gotorlekuko atearen aurrean dauden gezi-leihoetara joko dugu. Eskuinean baterietara, bolborategira eta beste gela batzuetara daraman tunela dago.

Gero barruko lubanarro edo hobira jaitsiko gara, bertatik oinplano pentagonaleko kuarteleko sarbidea aurkitzeko. Eraikin horretako azotea gezi-lehiodunera ere igoko gara, bisita merezi du eta.

Barruko lubanarroko bazter batean, saiheztar babeseko bateriara eta kanpoko lubanera irteteko atea topatuko dugu. Merezi du (landaretzaz garbi egonez gero) lubanarro osoari buelta ematea. Gotorlekutik ateratzerakoan, ez ahaztu ibilitako hobia kanpotik ere ikustea, baita bateria osagarria ere.

*San Markos eta
Txoritokieta bisita-
riarentzat zabalik
egoten dira; Guada-
lupe, ordea, itxita.*



JUAN ANTONIO SAEZ

120 soldaduri ostatu emateaz gain lubanarroaren babeserako malkar-galeriari segida ematen zion.

Bigarren solairua kuartela zen, 276 soldadu hartzeko gai. Ekialdeko muturrean munizio biltegia zeukan. Azkenik, hirugarren solairuan itsasoari begira dagoen 5 kanoiko bateria aurkituko dugu, baita obus bateria bat eta lehorrari begira dagoen beste kanoi bateria bat ere. Ekialdeko muturrean behatoki korazatua atondu zuten, baina egun sarbidea besterik ez dago. Bertan zeuden, halaber, komandantearen egoitza, sukaldea, biltegiak...

Erdiko Atala, hiruretan apalena, lau kanoiko barbetako bateria baino ez zen. Eskuin Atalean, azkenik, artilleria kuartela, obus bateria erdi ehortzirik, kosta kanoi biko bateria eta Irun-Hondarribia defendatzeko bateriak egokitu zituzten.

Bide estaliak eta lubanarroak hiru atalak inguratzen dituzte. Azken horren defentsarako gezi-leihodun galeria bat eta bost lubanarro-babes atondu zituzten, kanoi-zulo, gezi-leiho, matakana, granadak jaurtitzeko zulo, luban, ordezko munizio eta malkar gezi-lehioduneko alde txiki erantsiak eta guzti. Gotorlekuak bateria osagarria ere badauka, Kalbariokoa hain zuzen.

Proiektuaren arabera, Guadalupen 69 artilleria pieza eta 600 soldaduko goarnizioa sartzen zen.

GUADALUPEKO

GOTORLEKUAREN IRUDI BI ETA PLANO ZEHATZA. EZKERREAN, FUSILERIAKO PARAPETOA -500 SOLDADURENTZAT- ETA HOBIA. GOIAN, HOBI BARRUKO KANOI-ZULOA.

Guadalupe: Alerik bikainena

Guadalupeko Ama gotorlekua Juan Roca ingeniari militarrak diseinatu zuen. Oinplano oktagonalean dauka eraikinak, hiru ataletan (*Obra*) banatuta: Erdikoa, Eskuinekoa eta Ezkerrekoa. Bakoitzak bere munizio eta ordezko piezen biltegiak ditu, baita patioak...

Ezkerreko Atalak barbetako bateriaz eta kasamatadun bateriaz hornituta dago. Azken horren egitura konplexua da, bederatzi hormigoizko gangaz osatutako hiru solairu ditu eta. Behekoak

SUA ARTXIBOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara departamendua